

ataria

Abentura bat da euskara

2019-07-12
1.091. zenbakia
107.6 fm ·
www.ataria.eus



Audi Teknikaren abangoardian.

Nork itxaron nahi du bihar arte?



Audi Q5, hilean 290 eurotik*

Audi Garaia da, uztailaren 1etik 31ra bitarte.

Gauza batzuegatik itxaron egin behar da, baina, Audi Q5 bat hilean 290 euroan*, sekulako rentingarekin eta zerbitzu guztiak barne izategatik, ez.

Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic. CO₂ igorpenak (g/km): 189-200 (NEDC: 144-146). Kontsumoa (l/100 km): 7,2-7,6.

* Audi Financial Services-en eskaintza, Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic batentzat kalkulatuta, 36 hilabete eta 45.000 kilometroko renting kontratu batekin, 7.296 euroko diru sarrera eginez, Volkswagen Renting S.A.ren bidez. Kuotak eta hasierako diru-sarrerak ez dute BEZa barne. Gurpil aldaketa ez dago eskaintzan txertatuta. Audiren Sare Ofizialetan mantentze eta higadura zerbitzu guztiak, bermea (matxura konpontzea), arrisku orotarako frankiziarik gabeko eta bideko laguntzadun aseguruia barne. Beste bertsio eta ekipamendu batzuetarako, egin kontsulta zure Audi Kontzesionario Ofizialean. 2019/06/30era bitarteko eskaintza, stockean dauden unitateentzat. Audi Financial Services Volkswagen Finance S.A. EFC-k komertzializatutako marka bat da. Ikusgai den modeloa ez dagokio eskaintzari.

Egunean behin

XXI. mendeko abertzaletasunaren inguruko hitzaldi bat antolatu zuten joan den astean Baionan UEU Udako Euskal Unibertsitateak eta Iratzar Fundazioak. Ideia interesgarriak jorratu zituzten bai hizlariak —Amalur Alvarez, Lorea Agirre eta Eduardo Apodaka— eta baita publikoko zenbait lagunek ere.

Herria egiteko zerbait asmatu behar dugu; hori da abiapuntua. Horretarako, eta arrazoi identitarioak eta historiakoak indartzeko, argitu beharra daukagu abertzaletasunak euskal herritarroei zer ematen digun edo eman behar digun —feminismoak zertarako balio digun argi dugun bezala—. Beraz, fokua praktikotasunean jartzea ezinbestekoa da. Ildo horretan, urrats esanguratsuak egiten ari dira esparru anitzetako eragile sozial ugari, eta agerikoa da burujabetzaren edo geure buruak gobernatzearen aldeko jarrera nagusitzen ari dela azken boladan.

Egunero-egunero banaka zein kolektiboki hartzen ditugun erabaki politikoetatik abiatzen da burujabetza eta, beraz, baita abertzaletasuna ere, hein batean; nongo esnea gosalduta, telebistan zein

kate jarri, garraio bat ala bestea erabili, zer jantzi, nola eta norekin izan harremanak, lehen hitza euskaraz egin ala ez, plastikoa erosi ala ez, sare sozialetan zein profil edo orrialde jarraitu, zer irakurri, non erosi, denbora librean zer egin...

Herria burujabetzatik eraikitze bidean, ideia, egitasmo eta estrategia handiak bezain garrantzitsuak dira azken urteotan tokian toki eta arloz arlo sortzen ari diren proiektuak, praktika onei zuzenean lotuta daudenak. Euskaraldia, Errigora, GoiEner eta Ene kantak, esaterako. Zerrenda luze horri berri bat gehitu zaio duela hilabete gutxi batzuk: CodeSyntax-ek garatu duen *Egunean Behin* jokoa.

Egunean Behin mugikorretarako aplikazio bat da, euskarazko galdera-erantzunezko joko bat. Batez ere Euskal Herrian oinarritutako 10 galdera erantzun behar dira egunero, bertako erreferentziak eta kanpokoak uztartuta, eta sari bat jokatzeko da astero. 12.000 erabiltzaile baino gehiago konkistatu ditu da-

goeneko, eta erraz harrapatzeko bada ere, nekez biziatu daiteke joko honetara; egunean behin bakarrik jolas-tu baitaiteke. Hori bai, gaur aplikazioa jaitsi eta lehen frogatxoak egiten baduzu, kostako zaizu bihar huts egi-tea.

XXI. mendeko abertzaletasunak bizirik iraungo badu, halako proiektu «txikien» eraginean ere sinistu eta inbertitu beharko dugu eta egunean behin baino gehiagotan jarri beharko ditugu zalantzan hartzen ditugun erabaki «txiki» handi guztiak.



JONE AMONARRIZ
KOMUNIKAZIO
TEKNIKARIA

03

Egunero-egunero banaka zein kolektiboki hartzen ditugun erabaki politikoetatik abiatzen da burujabetza eta, beraz, baita abertzaletasuna ere, hein batean

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

bai
zehiztaria eta
bata euskaraz

Bikain

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Eskara Abentura



Uztailean nahiz abuztuan, Santa Klara komentua bisitatzeko aukera izango da, doan. **JOSU ARTUTXA**

04 EZAGUTU BEHARREKO BI TENPLUAK

Ikasturtean zehar egiten diren bisita gidatuez harago, herritarrei nahiz bisitariei eskaintza zabaltzea erabaki du Tolosako Udalak. Udan, Santa Klara Komentuko eliza eta Santa Maria Parrokia izango dira protagonistak.

Josu Artutxa Dorronsoro

Betidanik esan izan da, materialak nahiz ez materialak diren kultur ondasunak kontuan izanez gero, Tolosa herri oso aberatsa dela. Aberastasu hori baliatu nahi dute, aurtengo udan, bertara hurbiltzen diren bisitariek nahiz oporrak bertan igaroko dituzten herritarrek plan gehigarri bat izan, eta herriari buruzko ezagutza areagotzeko helburuarekin. Hain justu, Santa Klara Eliza eta Santa Maria Parrokia ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko ditu, udalak, doan.

Atzo egin zuten aurkezpena, bi tenpluetan. Nerea Letamendia Turismo eta Azoketako zinegotziak adierazi zuenez, «urtean zehar antolatzen diren bisita gidatuez gain, Santa Maria parrokia herritarrei nahiz bisitariei

erakusteari ekin genion 2016ko udan. Eskaintza hauek izan duten arrakasta handiaren ondorioz, aurten berrikuntza bat gehitzea erabaki dugu». Hiru urte hauetan, zenbait datu ere bildu ditu udalak. «Iaz izandako bisitarietatik %18 tolosarrak ziren, beraz, azpimarratzekoa da herritarrengan interes handia dela jakitea, baita Tolosak duen ondare historikoaren gaineko ezagutzaren parte izan nahi hori ere».

Ramon San Sebastian tolosarra izango da bi tenpluetan gida lanak egingo dituen. Euskal Herriko Unibertsitatean, Artean eta Historian graduatua da. Azken hilabeteetan eraikinen gaineko kondairez, istorioez eta ezaugarriez aberasten aritu da, azalpenak behar bezala prestatzeko. Bisita gidatuetarako bere helburu nagusia, «aberastasun guztiaren kontzientzia izatea eta hori zabaltzea» da.

Tolosako bi tenpluak bisitatzeko eskaria maiz jaso izan dutela aitortzen dute udaletik. Horregatik, aukera berri hau eskaintzeak, bisitariak erakartzearaz gain, herritarrak ere animatuko dituela pentsatzen dute. Udaletik diotenez, «Santa Klara komentua txoko berezia eta ezezaguna da tolosar askorentzat, gutxitan ireki baititu elizako ateak». Komentua 1666an eraiki zen. Bertako eliza, barroko estilokoa, oso ezezaguna da bere akustika paregabeagatik. Tolosako Abesbatza Lehiaketetan asko dira han kantatzeko eskaera egiten duten abesbatzak. Independentziako gerran eta karlistadetan ospitale militarra izan zen. Bere inguruan garai haietan lur emandako soldaduen gorpuak aurkitu ziren. Iurreko Amabirjina, aldareak, eta beste hainbat artelan ditu ikusgai.

Udaletik adierazi dutenez, Santa Klara Komentua «txoko ezezaguna da tolosarrentzat, gutxitan ireki baititu ateak»

Tolosako Alde Zaharra nahiz larunbatero plazetan egiten den azoka ezagutzeko aukera ere izango da, 3 euroren truke

1503ko sutean erre zen beste eliza txikiago baten ordezkia da Santa Maria. 200 urte baino gehiago behar izan ziren eraikitzeko, eta estilo askotariko ezaugarriak ditu. Tamainan, Gipuzkoako bigarren eliza handiena da, (1.630 metro karratu ditu), Donostiako Artzai Ona katedralaren atzetik. Eliza egiten aritu ziren arkitektoen eta eskulangileen artean Martin Carrera nabarmendu behar da. San Estebango ermitaren portada erromanikoa du barnean, baita Tolosako patroia San Joan Bataiatzailearen eskultura ere.

Uztailearen 15etik abuztuaren 31ra bitarte luzatuko da eskaintza. Astelehentik ostiralera (11:00-14:00) zabalik egongo da Santa Maria Parrokia, eta bisita gidatu bat eskainiko da (12:00-13:00). Larunbatean ere (11:00-12:00) irekiko da. Bi tenpluen bisita larunbatetan izango da, 12:00etatik aurrera, eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Santa Klaratik hasi, eta Santa Maria Parrokian amaituko da. Aipatzekoa da, uztailearen 25ean nahiz 31n, eta abuztuaren 15ean, ez dela udalak antolatutako bisita gidaturik izango, jaiegunak direlako.

Kaleko bisitak mantentzen dira

Tolosako bi tenpluak, ordea, ez dira herriko bisita gidatuen zerbitzuan ge-raleku bakarrek izango. Tolosaldea Tour elkarteak, Tolosako Alde Zaharra ezagutzeko eta Azoka bisitatzeko au-kerak eskainiko du, 3 euroren truke. Brian Cullenek egingo ditu gida lanak. Gainerako bisiten kasuan ez bezala, Tolosaldea Tour-ek antolatutakoek ez dute aldaketarik izango uztaileko eta abuztuko jaiegunak direla eta.

Alde Zaharreko bisitak, uztailean, aste osoan zehar antolatuko dira; abuztuan, berriz, ostegun, ostiral eta larunbatetan, ordutegi eta hizkuntza ezberdinetan. Azokarenak, berriz, larunbatero izango dira, 11:00etan hasi-ta. Bisitetan parte hartzeko, Tolosako turismo bulegora bertaratuz, tour@tolosaldea.eus helbide elektronikora idatziz, 943 697 413 telefono zenbakira deituz edo www.tolosaldea.eus web-gunean eman daiteke izena. Bisiteta-rako izena aurrez ematea eskatzen dute udaletik, gidek gutxi gorabehera-ko kopuruak jakin ahal izateko.

TOLOSAKO BISITA GIDATUAK UZTAILA

Alde Zaharra. Astelehenetik ostiralera:

10:00; 11:00; 13:00. Larunbata: 10:00;
15:00; 16:00; 17:00; 18:00.

Igandea: 10:00; 11:00; 12:00; 13:00.

Prezioa: 3 euro.

Tolosako Azoka. Larunbata: 11:00.

Prezioa: 3 euro.

Santa Maria Parrokia. Astelehenetik

ostiralera: 11:00–14:00 zabalik. Bisita
gidatua: 12:00. Larunbata: 11:00–12:00
zabalik. Doan.

Bi tenpluak: Santa Maria Parrokia eta

Santa Klara Komentua. Larunbata:
12:00. Doan.



Ramon San Sebastian tolosarrak egingo ditu gida lanak, bi tenpluen bisita gidatuetan. J. A.



Bisitariak nahiz herritarrek, aukera ezberdinak izango dituzte, herriaren historia ezagutzeko. J. A.

ABUZTUA

Alde Zaharra. Osteguna eta ostiral:

10:00; 11:00; 13:00; 15:00; 16:00; 17:00;
18:00. Larunbata: 10:00; 15:00; 16:00;
17:00; 18:00. Prezioa: 3 euro.

Tolosako Azoka. Larunbata: 11:00.

Prezioa: 3 euro.

Santa Maria Parrokia. Astelehenetik

ostiralera: 11:00–14:00 zabalik. Bisita
gidatua: 12:00. Larunbata: 11:00–12:00
zabalik. Doan.

Bi tenpluak: Santa Maria Parrokia eta

Santa Klara Komentua. Larunbata:
12:00. Doan.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Ugalde, Oruesagasti eta Arozena, gaurko bisita antzeztua hasiko den tokian, eskola atarian. J.M.

Herri bizia dela erakusteko eguna

06

Irura Bizi elkarteak bere eguna ospatuko du gaur; 18:00etan garai bateko herria ezagutzeko bisita antzeztua egingo dute

Jon Miranda

Herri giroa sustatu eta herritarren arteko harremanak sendotzeko 2017an elkarte bat sortzeko prozesua abiatu zuten Iruran. Luze jo du prozesuak, baina Goizargi Oruesagasti elkarteak talde eragileko kideak aipatu duenez, nahiago izan dute horrela egin: «Pausoz pauso joan gara, urrats bakoitza elkarrekin adostuz, bagene-kielako horrela jendea inplikatu egingo zela». Aurreko irailetik hona abiada bizia hartu du elkarteak eta aurrera begirako erronkak zehaztu, lan ildoak finkatu eta elkartearen funtzioak adostu dituzte. Urtarrilean Irura Bizi izena aukeratu zuten elkartearentzat eta berriki erabaki dute logoa. Hasiak dira, dagoeneko, ekimenak antolatzen.

Hain zuzen, urte hasieran bilera ireki bat egin zuten iazko ekintzak baloratu eta 2019ko plangintza egiteko. «Garrantzitsuak iruditzen zaizkigu horrelako bilera irekiak egitea, jendeak proposamenak luzatu ditzan eta bide batez elkar ezagutu gaitezen»,

esan du Oruesagastik. Talde eragileak gainera, hiru lan talde zehaztu dituzte Irura Bizi elkartearen: kirola; euskara eta kultura; eta herri bizia, transmisioarekin lotutako gaiak lantzeko.

Talde bakoitzak bere autonomia du, eta gero, antolatutako ekitaldiak zabaltzen dituzte herritarren artean. Kontentu daude lortu duten saretze mailarekin eta Oruesagastik nabarmendu duenez lortu dute elkartearen bueltan adin ezberdinetako jendea biltzea. «Akaso oraindik lortu ez duguna, Iruran bizitza egiten ez duen jendea erakartzea da. Hasi dira aleka batzuk gerturatzen, baina badakigu prozesua luzea dela. Bitartekoak jarri behar dira, baina aldi berean, guk geuk ireki egin behar dugu», azpimarratu du Oruesagastik.

Antzeztutako bisita gaur

Ekitaldi asko antolatu ditu lan talde bakoitzak urtean zehar eta dagoeneko hurrengoak pentsatzeko beste bilera ireki bat egiteko asmoa dute irailean. Iazko uztailan, herriko gazteekin batera Uzta Giro jaia antolatu zuen elkarteak, eta aurten ere, data berdintsuan beste jai bat prestatzea erabaki dute. Gaur arratsaldean egingo dute eta festa osatzeko, Herri Bizia lan taldekoek bisita gidatu antzeztua prestatu dute.

IRURA BIZI EGUNA

UZTAILAK 12, OSTIRALA

18:00. Irura, denboran zehar. Garai bateko Irura ezagutzeko bisita antzeztua, plazatik abiatuta.

20:00. Poteo musikatua.

21:00. Herri afaria plazan. Platerak eta mahai-tresnak norberak eraman beharko ditu

Afalondoa. Sabin Guarestiren musika emanaldia.

Alazne Arozena lan taldeko kideak azpimarratu duenez, «garai bateko argazkiak erakutsiz erakusketa bat egin asmo genuen hasieran, baina pixkanaka forma hartzen joan eta gidatutako bisita antzeztua izaten amaitu du». 17 lagun inguru ariko dira 1950. urte inguruan Irura nolakoa zen azalduz. Garai hori ezagutu zuen Marimi Ugalde herritarrek eta gaurko bisita gidatua hartuko du parte: «Orduan zutik zeuden baserriak dagoeneko desagertu dira eta herrian zehar egingo dugun itzulian etxeak nolakoak ziren erakutsiko dugu argazki bitartez».

Arozena eta Ugaldeekin batera, Jexux Mari Arsuaga ariko da gidari lanean gaurko bisitan. Iratxe Ramirez herritarrek, berriz, txikitari Iruratik alde egindako pertsona baten papera jokatuko du antzerkian eta behin herrira itzulita zeinen aldatuta topatu duen kontatuko du. Horretarako herriko gune ezberdinak bisitatuko dituzte plazatik bertatik abiatuta. «Garai bateko eskola atarian egingo dugu hitzordua 18:00etan eta gela borobilean frankismo garaiko eskola nazionalak nolakoak diren irudituko dugu», esan du Ugaldek. Ikasle paperean, besteak beste, Ugalde beraren eta Arsuagaren bilobak ariko dira.

«Belaunaldien arteko transmisioa irudikatu nahi dugu bisita gidatu honenkin», esan du Arozenak. Plazatik abiatu, elizako arkupeak, garai batean errota zegoen tokia, Lumane ingurua eta garbilekua zeharkatuko dituzte ibilbidean zehar, Anoeta eta Irura lotzen dituen zubian bukatzeko. «Aspaldi batean bi herrien artean egin zen mus partida gogoratuko dugu zubian eta horren harira jarri ziren bertsoak kantatuko ditu Aitor Mendiluzek».

Gogor egin dute lan azken asteetan bisita gidatua prestatzeko eta eguraldia lagun, ordu eta erdian erakutsiko dute nolakoa zen garai bateko Irura.

Bortxatu eta ia hil egin zutela kontatu du Ainhoa Artetak

New Yorken izan zen eraso 1990an, lehen opera batean parte hartzeko gonbidapena egin zioten egun berean

Erredakzioa

Hogeita bost urte zituen pasarte gogor hura bizi zuenean, baina oraindik ondo baino hobeto gogoratzen du bizi izan zuena. «Nire bizitzako pasarterik gogorrenetakoa izan da» adierazi du, TVE Espaniako telebista katean egin dioten elkarrizketa batean. «Ez zen bortxaketa soilik izan, ia hil egin ninduen gizon hark».

Artetak azaldu duenez, 1990ean New Yorken zuen bizilekua ez zen hain zuzen inguru lasaia. «Egunean zehar merkatal gunea zena, prostituten, proxeneten eta drogen bilgune bilakatzen zen gaua iristean... azpimundu beldurgarria». Familia bat eta neskatila bat zaintzen lan egiten zuen abeslariak, eta, egun batean, etxera bidetan, eraso egin eta bortxatu egin zuen gizon batek. Hain justu, lehen opera batean parte hartzeko gonbita egin zioten egun berean. «Ez nuen denborarik izan dolua igarotzeko, ez eta gertatu zitzaidanaren inguruan pentsatu eta hausnartzeko», adierazi du. «Bizirik egotea zoriontsu egoteko modukoa zela esan zidan poliziak».



IGERILEKUA IRURAKO TRINKETEKO APARKALEKUAN

Uztailaren 26ra arte Trinketeko aparkalekuan jarri duten igerilekua irekita egongo da astelehenetik ostiralera 16:00etatik 19:00etara. Igerilekuaren edukiera 12 pertsonakoa da eta bertan sartzeko begiraleei kasu egin behar zaie, txandak errespetatuz. J.M.



AMAITU DITUZTE ESTALPEA JARTZEKO LANAK

Irurako Udalak San Migel plazako haur parkea estaltzeko egin dituen obrak amaitu dira. Urbabil 2.000 SL enpresak egin ditu lanak azkeneko hilabete hauetan eta dagoeneko jolaslekua irekita dago. J.M.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Jokin Altuna finaletik garaipen batera geratu da sanferminetan

Gaur jokatu du partida erabakigarria Ladis Galartza lagun duela, Ezkurdia eta Zabaletaren aurka

Asier Imaz

San Fermin Txapelketa une erabakigarrian sartu da. Sei bikote finaleko bi posturen lehian. Bizirik jarraitzen duen eskualdeko ordezkari bakarra Jokin Altuna da. Asteazkenean, 22-18 irabazi zien Artola-Mariazkurrena II.ari. Alegiarrak Urrutikoetxearen lekuan jokatu zuen, aurrera egiteko ia aukerarik gabe. Izan ere, partida irabazteaz gain aurkariak 7an utzi behar zituzten. Ez zen horrelakorik gertatu, galtzaile atera baitziren Altuna III-Galartzaaren aurka.

Multzoko lehen postua eta finalerako txartela erabakitzeke lehia bakarra geratzen da: gaur, 22:15etik aurrera, Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dena. Ezkurdia-Zabaleta, Altuna III-Galartzaaren aurka. Irabazleak igandean jokatu den finalean egongo dira.

Asteazkeneko partida giro paregabea jokatu zen. Labrit lepo bete zen eta sanferminetako festa pilotalekura eramán zuten zaletuek. Mariezkurre-



Asteazkenean, Artola eta Altuna III.a Labritetako partidán. JOSU ARTUTXA

na II.ak izugarrizko partida jokatu zuen. Jokin Altunak une honetan parekorik ez duela erakutsi zuen. Ohiko artista senari seriotasuna gehitu dio amezketarrak, eta ikusgarria izan zen aukera gutxiarekin eskaini zuen erakustaldia. Galartzak ez zuen partida txarra jokatu, nahiz eta Mariezkurrena II.ak denbora guztian bizkarra erakutsi. Iñaki Artola izan zen maila eman ez zuena. 7 tanto egin zituen alegiarrak baina 9 kale. Ez zuen bere atzelariaren nagusitasuna aprobetxatu.

Txanponaren beste aldean amezketarra. 9 tanto egin zituen baina kale

bakarra. Partida handia jokatu zuen benetan Jokin Altunak. Markagailua oso parean joan zen azken txanpara arte. Hor bikote gorriak abantaila lortu zuen eta ez zuen barkatu. Galartzak egindako bat eta 6 hutsegiterekin amaitu zuen. Mariezkurrena II.ak lau egindako eta hiru kale besterik ez. Ikusgarri aritu zen atzelari urdina. Binakako txapelketa bikaina jokatu zuen nafarrak, baina orain beste maila batean dago: atzelari onenen artean.

Hurrengo jardunaldia, esan bezala, gaur jokatu da Iruñeko Labrit pilotalekuan, 22:15etik aurrera.

Ander Uranga Europako Txapelketara

Erredakzioa

Europako 20 urtez azpikoen atletismo txapelketara joateko txartela lortu du Ander Urangak. Espainiako federazioak jakitera eman duenez, anoetarrak 4X100eko proban parte hartuko du Espainiako selekzioa ordezkatzuz. Txapelketa Suediako Boras hirian jokatu da uztailearen 18tik 21era bitartean. Tolosa CF Atletismo taldetik zorionak eman dizkie Urangari, zorta ona opaz.

16 urtez azpikoak

Joan den asteburuan jokatu ziren Espainiako txapelketak Gijonen. Tolosa CF Atletismo taldeko ordezkariak bertan izan ziren. Hauek izan ziren lorpenak: Nere Jauregi 6. izan zen altuera jauzian, 1.57ko jauziarekin. 1.60 oso gertu izan zuen baina orpoekin bota zuen listoa. Hala eta guztiz ere marka eta postu bikaina lortu zuen.

Ibone Ezeizabarrena finaletik segundo bakarrera geratu zen 1.000 metrotan, 3.06ko denborarekin.

Ane Martinek bere marka pertsonala hobetu zuen 3.000 metrotan, 10,39 eginaz. 10. postuan amaitu zuen proba.

Irati Azpilgainek bi frogatan parte hartu zuen. 100 metrotan 13,12ko denbora egin zuen, kanporaketetan geldituz. Luzera jauzian talonamendu arazoak izan zituen eta ez zen 5 metrora iritsi, 4,94ean geratuz.

Ander Aristi bere markatik gertu ibili zen 300 metro hesietan, 42,37 eginaz.

Harri-jasotzaileen Txintxarri Saria, etzi



Aimar Irigoien erreizildarra txapela irabazteko faborito nagusienetakoa izango da. IRATI SAIZAR

Alegian jokatu da Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa; zazpi harri jasotzaile ariko dira lehian

Erredakzioa Alegia

Alegia festetan dago. Urtero beazala, herri kirolariek bere lekua izango dute, eta ez nolanahikoa. Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa jokatu da igandean, hau da, XIV. Harri Jasotzaileen Txintxarri Saria. Zazpi harri-jasotzaile ariko dira lehian, eta baten faltan, hiru faborito nagusi izango dira. Lau harrirekin hiru minutuko txandak izango dituzte parte hartzaileek. Harriak ondorengoak izango dira: 100 kiloko bola; 112,5 kiloko kubikoa; 125 kiloko zilindrikoa eta 125 kiloko laukizuzena. Txapelketa 18:30ean hasiko da Alegiako Larraitz auzoko plazan.

Harri-jasotzaileei dagokienez, Aimar Irigoien izango da txapela janzteko faborito nagusia, baina ez bakarra, lehia benetan parekatua aurreikusten baita aurtengoan. Errezildarrari aurre egiteko asmoz Mikel Lopetegi *Urria* gaztea joango da Alegiara. Inhar Urruzunorekin adi ibili beharko da, bere lana fin egiten duen harri-jasotzailea

izanik, besteen akats txikienaren aurrean txapela irabazteko hautagai bilakatuko baita.

Hiru faborito nagusirekin batera, Imanol Albizu *Goikoetxe*, Iñigo Eizagirre, Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.a* eta Xabat Olaizolak osatzen dute punta puntako kartela.

Sega txapelketa

Alegian igandean izango baldin bada harri-jasotzaile txapelketa, bezperan, herri kirolek Zizurkilan izango dute hitzordua. Gipuzkoako Azkartasuneko Segatxapelketa jokatu da Gereseta baserri ondoko zelaian, 18:00etan hasita.

Gizonezkoen txapelketa bakarrik jokatu da eta zazpi segalarik eman dute izena. Finalera lau bakarrik pasako dira, ondorioz, lehenik kanporaketa jokatu beharko dute 100 metro kartratuko sailean. Lehen lau sailkatuek, ondoren, beste horrenbesteko lana egin beharko dute finalean. Zazpi segalariak hauek izango dira: Peio Argaia (Zizurkil), Arkaitz Arteaga (Baliarrain), Julen Gabirondo, Suharri Irastabarrena, Mikel Lizartza (Tolosa), Jon Otegi eta Iban Pardo. Txapelketa Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatzen du.

Elkartearen eguna ospatuko dute bihar Tolosa Aurrerakoek


Erredakzioa Tolosa

Aurten lehenengo aldiz klubaren eguna antolatu du Tolosa CF-ren pilota sailak. Egun osorako plana presatatu dute. Klubaren egun hau, bihar izango da Tolosako Beotibar pilotalekuan. Ospakizuna 08:45ean hasiko da, topaketarekin. Ondoren, 09:00etan, Uzturre mendi igoera egingo dute. 11:00etan, mendian izan direnentzat gosaria izango da Aurrera Elkartek antolatuta. 13:00etan, frontoian elkartuko dira argazkia ateratzeko saileko kide guztiak. Jarraian, triki poteoa egingo dute. 14:30ean, bazkariaren txanda izango da eta 18:00etan berriro ere triki poteoari ekingo diote, eguna amaitzeko. Tolosa Aurrera pilota elkartetik jakitera eman dutenez, Beotibarren festak irauten duen bitartean ate irekiera ekitaldia izango da. Pilotari profesional bat ere bertan izango dela iragarri dute, haurrekin solasaldian.

Uzturpe kiroldegia itxi egingo dute pintaketa lanengatik

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Uzturpe frontoian egokitzen lanak egingo dituzte, hain zuzen ere, pintaketa lanak. Atzo hasi zituzten lanak eta uztailearen 18ra bitarte jarraituko dute. Data horietan kiroldegia itxita egongo dela azaldu dute arduradunek. Uzturpe kiroldegia Tolosaldea Lanbide Heziketa eta Orixe Institutuen atzean dago.



ANOETA - Iturtxulo 1

3 logelako etxebizitzak
210.000€ tik hasita

Kale Berria 46, behea
20150 Villabona

607 445 484
943 69 02 97

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com



AINTZANE ARTOLA

Salmorejoa

Oso udakoa den errezeta bat dakarkit: salmorejoa. Andaluziarra den platera da, eta osagai nagusia tomatea du.

Gazpatxoa ere ezaguna da, baina kasu horretan luzokerra edo peninoa du, eta salmorejoak ez. Niri horregatik gustatzen zait salmorejoa, luzoke-rrik ez duelako.

Zopa bat da, eta osagai natural-naturalekin egin-a. Hotza jateko da, fresko-freskoa. Hozkailuan eduki dezakezu egina, eta primeran sartzen da.

Etxean purea egiteko makina badugu bertatik pasa ditzakegu tomateak zuzenean, eta pure bat lortuko dugu. Ez badugu, errazena, tomateak hartu

eta ipurdi aldetik gurutzetxo bat egin-go diegu, eta irakiten ari den uretan sartuko ditugu 3-4 segundoz. Horrela, oso erraz zurituko dugu azala, egosi

gabe. Edota tomateak zuritzeko hortzadun labana bat ere erabili dezakegu. Gero, guztia, irabiagailuan pasa beharko dugu.

Behin tomate purea dugula, pixkana-pixkana ogi mamia gehitzen joango gara. Bezperako ogia izan daiteke, edota moldeko ogiak ere balio digu. Gatz puntua gehituko diogu, eta baita baratxuri

alea ere. Guztia irabiatuko dugu, eta lotzen joateko pixkanaka olio gehitzen joango gara. Horrela, zopa bat lortuko dugu, baina ogi mamiak eta olio-



AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA

ak pure itxura bat emango diote. Pixka bat lodia geratu behar zaigu, eta prest edukiko gure salmorejoa. Hori bai, tomatea du eta beti hozkailuan gordeko dugu.

Nahi izanez gero, egositako erremolatxa erdi bat gehitu ahal diogu, eta kasu honetan, gure salmorejoa arrosa izango litzateke. Kolorez aldatuko da.

Osagai ezberdinak, gainera botata

Kopa edo edalontzi batzuetan zerbitzatu dezakegu, eta gainera, esaterako, urdaiazpiko dadotxo batzuk bota ahal dizkiogu. Edo, arrautza bat egosi, eta gainera birrinduko diogu, edota ogi-txigorki batzuekin jarri dezakegu.

OSAGAIAK

- Kilo bat tomate (ahalik eta helduenak)
- 200 gramo ogi mami
- Baratxuri ale bat
- 150 mililitro oliba olio birjina extra
- Gatza



Eta agur bat



Joan den uztailen idatzi nuen artikulua neurri batean berreskuratuko dut gaurkoan eta, bide batez, agur esan testu-gintzan burutu dudak ziklo honi.

Etengailua sakatzeko irrikatan gaudela dirudi lehen eguzki printzak agertu diren honetan. Mendi, hondartza, terraza nahiz erreka bazter batean denboraren zentzua galdu eta liburu eta musika pixka batekin eguna lasai igaro nahiko dute batzuek; kirolei, etxeko konponketei edota beste zaletasunei ekin nahiko diete beste batzuek.

Ez dugu asmatzen ordea deskonexio digitalarekin. Frantziatik zetorren



ANDER LORENTE
IRAKASLEA ETA
INGENIARIA

berria aurreko urtean, lan arloko deskonexio digitala lege babestuko omen zen. Euskal Herriko hegoaldean, aurreko, bestelako berriak izan ditugu. Lan jardunaren erregistratzaile legea abian jarri bezain laster, kontrolerako gailu eta app-en loraldia ikusi dugu. Pozarren jaso dute berria langile askok, modu honetan berezko lanalditik kanpo burututako lan orduak ordainduak izateko modua jarri baita. Hori da, berez, lege berriaren helburua. Askok segituan konturatu dira ordea, beraiekin lan egotek hobera ez egiteaz gain, sarrera orduaren kontrol zehatzagoa egiten zaiela eta irteera orduaren inguruan

iruzurra egin behar dutela. Digitalki lan jarduna bukatu arren, lanetik ezin direla deskonektatu, alegia.

Hala ere, oporraldian lan kontuek ahaztea gehienok atsegin dugun arren, mundu digitalarekin dugun konexioa haustea oso zaila egiten zaigula deritzot. Geroz eta ohikoagoa da jendeak jai egunetan mugikorra itzali egiten duela harro lau haizetara zabaltzea, baina norberaren burua engainatzeko modu ahul bat besterik ez da. Posta elektronikoa eta sare sozialekin dugun dependentzia areagotu egiten da aisialdi garaian, aspertzea ekiditeko nahiarekin. Egun batzuetako etengailu elektronikoa egingo duela Facebook eta Instagram bidez iragarriko duenik ere izango da, ziur. Urtean zehar maizago egin genezakeen ariketa interesgarria izan liteke, baina harago doan emaitzarik ez du sortzen gehien-goarengan. Lagun batek dioen moduan, denok ez dugu esateko zerbait, baina beti dugu erakusteko zerbait, are gehiago data seinalatu hauekin. Dagoeneko sarea bete da, beste urte batez, paella, hondartzetako oin biluzi eta aireportuetako terminal etako pantalailak.

Geroz eta ohikoagoa da jendeak jai egunetan mugikorra itzali egiten duela harro lau haizetara zabaltzea, baina norberaren burua engainatzeko modu ahul bat besterik ez da

Nik, beste urte batez, aurtengoan ere ez dut deskonexiorik egingo. Liburu eta egunkarien paper usaina berreskuratuko dut dagoeneko, ez da gutxi. Whatsapp soilez gain, posta-txartel bat bidaltzeko helburu txikia jarriko nion neurri buruari lehengo urtean, eta baita bete ere. Aurtengoan ohitura hau finkatzeko bidea jarri nahi nuke eta baita zuek ariketatxo hau egitera animatu ere. Ahaztu laneko posta, eta saiatu gogoratzen non dauden zure herriko postontzi horiak. Uda on!!



BIGARREN ALDIZ JZIOQUI DUTE!

13

Martxan da 'EuskarAbentura 2019' espedizioa. Euskara ardatz duen udaleku ibiltaria, berrikuntzekin heldu da aurten, eta asteartean iritsiko da Tolosara. Orotariko ekintzetan gustura dihardute denek, tartean, eskualdeko 10 kideek.

Josu Artutxa Dorronsoro

1 997an Unescok gizateriaren ondare izendatu zuen VI. mendean Donemiliaga Kukula udalerriaren eraikitako San Millan de Susoko monasterioa. Garrantzi linguistiko handia du. Monje batek emilianotar glosak idatzi zituen bertan, latinez idatzitako testuen ohar argigarriak. Bertan aurkitzen dira euskaraz idatzitako lehen hitzak ere. Hori dela eta, hizkuntza erromantzearen eta euskararen jaioleku bezala kontsideratzen da.

Donemiliagako glosak, X. eta XI. mendeetan eskuz idatzitako oharpen txikiak dira. Guztira, mila daude, eta horietatik bi dira euskarazkoak. Helburua, latinezko testuaren zenbait pasarte azaltzea zen. «Jzioqui dugu, guc ajutu ez dugu» dio euskarazko oharpenak. Ustez, «piztu dugu, gu ez gara egotzi» da bere esanahia. Hain justu, euskarazko idatzi zaharrena erabili nahi izan zuen, iaz, EuskarAbentura Elkartek, Euskal Herria zeharkatuko zuen espedizioaren izenari, lelo bat gehitzeko. «Bat dator egitasmoaren izpirituarekin: bidea piztu, hizkuntza piztu».

Euskaraldia ospatuko zela aprobetxatuz, hiztun gazteen

aktibazioan eragin nahi izan zuten iaz. Aurrez, elkarteak osatzen duten hamar gazte, hiru urtez aritu ziren egitasmoari forma ematen. Ruta Quetzal izeneko espedizio-sorta eredu hartuta, euskal aldaera bat martxan jartzea zen ideia. Lortu zuten, eta aurten, berriz piztu dute ilusio hori.

Mauletik Getxora, Trebiñutik barrena

140 partaidetik gora, 31 etapa, ia 800 kilometro eta zenbatu ezinezko bizipenak begi aurrean bilduko dituen abentura da. Euskararen bueltan inoiz egin den espediziorik handiena. Hori da EuskarAbentura. Euskal Herria oinez zeharkatzea eta euskararen lurraldeko geografia, kultura eta historia lagunartean ezagutzea helburu duen ekimenaren bigarren ekitaldia ospatzen ari dira uneotan.

Euskal Herriko zazpi probintzietatik nahiz diasporatik inguratutako 16-17 urte bitarteko 121 euskaltzale bildu ziren, Maulen, bidaiari ekiteko. EuskarAbentura Elkartetik diotenez, «adin tarte hau da gauzak deskubritzen eta heldutasunean definituko gaituzten esperientziak bizitzeko unea. Gainera, gazte garaian harreman ugari egiten dira, eta oso garrantzitsua da horietako hizkuntza ohituretan

eragitea». Adin txikikoez gain, abenturaren parte dira 25 gazte ere: logistikaz arduratzen den espediziozko koordinatzaile orokorra, furgonetak gidatzeaz eta materiala garraiatzeaz arduratzen diren bi gidari, hamar xerpa (begiraleak), bi xerpa-buru eta hiru xerpa-laguntzaile, osasunaz arduratzen diren bi mediku eta erizain bat, eta komunikazio lan mardula egiten ari diren bi kazetari, eta bideogile nahiz argazkilari bana. Guztiek, formakuntza-asteburua egin zuten espedizioari ekin aurretik, Barrian (Araba). Xerpa gehienak iazko berdinak dira, eta aurten, xerpa-laguntzaile figura sortu dute, iaz jzioquitar izan eta abentura oso ondo ezagutzen dutenen eskutik.

Uztailan zehar, gure lurraldea zeharkatzen dihardute 146 euskaldunek, eta jada burutu dute bidaiaeren lehen herena. Lehen egunean, taldeka antolatu zituzten gazteko guztiak (espedizioan, jzioquitarrek). Multzo bakoitzak, gainera, xerpa edo begirale bat izango du. Ondoren kideek elkar ezagutzeko saioak eta jolasak egin zituzten, espedizioari buruzko informazio praktikoa jaso aurretik.

Nabarmenezkoa da aurtengo ibilbidearen %95 baino gehiagok Done Jakue bideko hiru adarretan egiten duela aurrera: bide frantsesa Mauletik Vianaraino, barnealdeko euskal bidea Gesaltzatik Iruneraino (aurkako noranzkoan) eta euskal kostaldeko bidea Baionatik Getxoraino. Bideak berak emango duenaz gain, Euskal Herrian kokatzen diren Unescok izendatutako gizateriaren ondare historiko guztiak bisitatzen ari dira. Interesgune azpimarragarri horietaz harago, aipatzekoa da, Trebiñutik igaroko dela espedizioa, bertan kokatutako ikastola bat bisitatzeko.

Bertan parte hartzeko, ehunka lagunek bidali zuten motibazio gutuna. Aipatzekoa da, euskaraz dakien edonork eman dezakeela izena, eta ez dela matrikulazio-kuotarik ordaindu behar. Bestetik, lan bat ere burutu behar izan zu-



ten jzioquitarrek (espediziozko kide gazteek jasotzen duten izena). Lana prestatzeko, hiru gairen artean bat aukeratu behar izan zuten: Maite ditut maite gure bazterrak (Euskal Herria eta aztarna ekologikoa); joan-etorriak (migrazio mugimenduak); eta errimak eta erritmoak (musika, kan-





tua, dantza, olerkia edota antzerkia). Bost alor ezberdinen artean aukeratu behar zuten lana bideratzeko: historia, literatura, plastika, musika edo ikus-entzunezkoak. Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean ebaluatu ziren lanak, originaltasuna, estiloa, teknika eta kalitate irizpideak kontuan hartuta. Azkenean, talentu ezberdineko euskaldunek lortu zuten lan onenen egile agiria edo espedizio-beka.

Osasuna eta ingurumenarekiko kontzientzia

121 gazteren erreferente izango den taldea trinkotzeko ez ezik, hilabete osorako irizpide eta jarraibideak ezartzeko ere baliatu zuten Barriako formakuntza-asteburua. Talde sustatzailearen ustez, arestian aipatutako helburuez gain, beharrezkoa da positiboak diren zeharkako balioak transmititzea. Hori dela eta, 50 ekintza baino gehiagoko zerrendak aberasten du espedizioaren bizkarrezurra.

Lehenik, arriskuak gutxitu eta segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak eta jarduteko modua adostu zituzten. Osasun alorrean, alde batetik, gainkargak, babak, eguzki-erredurak, infekzioak edo kutsatzeak saihesteko neurriak zehaztu zituzten. Bestetik, larritasun mailaren arabera, kasu ezberdinen aurrean hauek kudeatzeko jarraitu beharreko prozedurak findu zituzten hilabetez bidean izango diren mediku eta erizainarekin. Gainera, gaixo kronikoak kontrolatzeko eta sor daitezkeen kasu ezberdinak artatzeko barne-protokoloak adostu dituzte, eta oinarrizko baliabide batzuk irakatsi dizkiete gainerakoei.

Bestetik, EuskarAbentura espedizioaren filosofiari jarraiki, espedizioan zehar ahalik eta zabor gutxien sortzeko neurriak hartzen ari dira. Horretarako, Hondakinen Kudeaketaren Hierarkian ezarritako lehentasunak betetzea finkatu dute helburu gisa: saihestu daitezkeen hondakinak saihestea (Prebentzioa), sortutako hondakinen bat berreskuratu badaiteke, berrerabiltzea eta birziklatu daitezkeen hondakinak sailkatu eta kudeatzea. Gainera, partaide bakoitzak bere tresna berrerabilgarriak daramatza motxilan.

Ingurumen arloari lotuta, lau saio ezberdin antolatu dituzte aurtun. Lehen, pasa den ostiralean gauzatu zuten, Auritzen. Auzolana ardatz izanik, erreka garbitzeko zabor biltzea egin zuten. Datorren ostiralean izango da bigarren saioa: Jakoba Errekondo agronomoaren konpainian egingo dute Hernani eta Irun batuko dituen 25 kilometroko etapa. Gure baratzeen, basoen eta paisaia botanikoaren gaineko irakurketa gauzatzeko baliatuko dute. Beste bi saioak, kostaldean egingo dituzte. Baionan, larrialdi ekologikoaren inguruko kontzientziazioari buruzko saioa, eta hilaren 25ean, Euskal Kostaldeko Geoparkera eta Flyschetara bisita.

Euskara ardatz duten beste hamaika ekintza

Euskararen protokoloa lantzeko, aurtun EBETE Hizkuntza Zerbitzuak taldeko Iñaki Eizmendiren laguntza izan dute. Iaz ikasitakoarekin eta Eizmendiren ekarpenekin espedizioaren xede garrantzitsuenetakoa den euskararen erabilera eragiteko markoa ezarri zuten bidaia-ekin aurretik. Batetik, jzioquitarren errealitate soziolinguistikoaren diagnostikotik abiatuta, espedizioak izandako inpaktua neurtuko dute; bestetik, horretan eragiteko askotariko dinamika garatuko dituzte. Besteak beste, probintzia bakoitzeko euskararen egoera azaltzen zaie gazteei, ezagutzeko eta hausnartzeko. Gainera, datozen asteetan, hizkuntzalari eta soziolinguista banaren saio berezia ere izango dute. Azkenik, euskalgintzari lotutako espazioak ere bisitatzen ari dira.

Gehienbat, baina, kulturaz eta ondare historikoaz elikatuko dute aurtengo abentura. Horregatik, bi alor hauei lotutako ekintzak dira gehienak. Euskal Herriko zenbait txoko (Gesaltzako gatzagak, San Millano monastegia, Zumalakarregi museoa, Antton Abadia Jauregia, Albalola Itsas Kultur Faktoria, Gaztelugatxe...) bisitatzeaz gain, musikari eta dantzari lotutako inprobisazio lantegiak eta hitzaldiak ere izango dituzte.

Gainera, bidaian zehar, Asisko Urmeneta ilustratzaileak, Euskal Herriko historiari buruzko azalpenak emango dizkiete espedizio-ekideei.

Genero berdintasuna sustatze aldera, eta konpromiso hori hartuta, emakumeen ahalgintza bideratzeko eta desberdinkeria ezabatze metodologian parte hartzaile eta ardura banaketa parekidea gauzatzeko dute Familia Urdinaren barruan. Eta hori bera proiektatuko dute jzioquitarrengan ere: rol tradizional hegemonikoen apurketa bilatuko dute jardueretan, honen inguruko hausnarketa sustatuko dute eta feminismoa ardatz izango duen mintegi bat ere proposatuko diete.

Orain arte, Ipar Euskal Herrian bizitzearen eta lan egitearen erronken nahiz zurrumurruen kontrako estrategia arrazakeriari aurre egiteko saio bana burutu dituzte. Datoren egunetan, lanaz, sexu eta genero identitateez, migrazioaz nahiz feminismoaz hornitutako mintegiak eta solasaldiak izango dituzte, besteak beste, Hiruki Larroxa Kolektiboko kideekin eta Jaizkibel konpainiako ordezkariekin.

Euskal Herrian barrena ibiltzeaz gain, aparteko jarduera fisikoa egiteko eta kirolariak gertuagotik ezagutzeko aukera izango dute. Yoga eta pilota tailer bana egingo dituzte, Bingen Esturo eta Patri Espinarrekin. Hilaren 30ean, berriz, Athletic futbol taldeko jokalariekin topatuko dira San Mamesen. Horrez gain, eraso sexisten nahiz jazarpenen aurkako protokolo bana garatu du elkarteak, baita drogen kontsumoa galaraztera bideratutako beste bat, lapurretak saihesteko beste bat eta baita sakelako telefonoen erabilera arautzeko hirugarren bat ere.

Eta guzti hau zertarako? Bada, azken egunean aurkeztu beharreko proiektua garatzeko. Iaz 10 talde ziren; aurten, berriz, 12, dira. Egun hauetan, taldeka biltzen dira, espedizioarekin zerikusia duen abestia, antzezlan edota dantza garatzeko. Gero, abenturan lagun izan dituzten gainerako kideei aurkeztuko diete proiektua, amaiera ekitaldian.

16 Proposamen berrien mezulariak

Aurten ere EuskarAbenturak Pasta Posta jarri du partaideen eskura. Honen funtzioa espedizioko zurrumurruek jasotzea, gazteak aurpegira esatera ausartzen ez diren mezu positiboak idatziz jasotzea, edota egun hauetan sortzen diren mezu sekretuak bidaltzea izango da. Hilabete bukaerara arte edonork egin ahal du bere ekarpena, eta egunero, gaubeila heltzen den unean irakurtzen dituzte mezuak.

Lehen egunetik hasi zen kutxa betetzen. Tartean, xerpei proposatutako erronka bat eta erretratu bat aurkitu dituzte. «Nire bihotzeko azukre koxkorra zara» moduko esaldiak alboratu eta proposamen berriak bilatzea da asmoa. Gainera, mezuak irakurri bitartean, emotikonoak irudikatzen dituzte aurpegi eta gorputzen laguntzaz.

Eskualdea, eraguztietara ordezkatuta

12 egun betetzen dira, gaur, abenturari hasiera eman ziotenetik. Beste horrenbeste etapa egin dituzte, eta bi aste epean, hiru probintzietatik igaro dira. Oraingo, 150 kilometro inguru egin dituzte EuskarAbenturako kideek, eta gaur, Vianatik Gesaltzarainoko bidea egiten ari dira, autobusez. Asteburuan, berriz, Gasteiz eta Araia bisitatuko dituzte. Tartean, gurasoen bisita izango dute gatzetxoek.

Datorren astearte arratsaldean, berriz, Ormaiztegitik helduko dira eskualdera, trenaz. Hain justu, Tolosan pasako dituzte hilaren 16ko eta 17ko gauak, Laskorain ikastolan. Asteartean, soziolinguistikari buruzko tailerra izango dute Kike Amonarrizekin. Asteazkenean, berriz, herrian igaro-



ko dute eguna. Goizean, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiari buruzko hitzaldia izango dute Enekoitz Etxezarreta eta Ion Morandeirarekin. Bazkal ondoren, gazteen eta ingurune digitalaren inguruan mintzatuko dira, eta afariaren osteko gaubeilan, bisita sorpresa bat jasoko dute. Oste-gun goizean, Hernanira abiatuko dira; aurrez, Andoingo Martin Ugalde parkeko *Berria* hedabidea bisitatuko dute.

Tolosaldea, baina, ez da geografikoki soilik ordezkatuta egongo. Espedizioa osatzen duten 146 kideetatik, hamar dira eskualdekoak: Tolosako Ioritz Segurola eta Leire Bengoetxea xerpak, eta Unai Altuna eta Haimar Martin xerpa-laguntzaileak, eta Adunako June Miner, Asteasuko Maddi Etxeberria, eta Tolosako Jon Dorronso-ro, Garazi Oiarzabal, Unax Odriozola eta Alain Odriozola jziokuitarrak.

Euskal Herri osoa espedizioaren parte

Abentura lehen pertsonan bizi ezin, baina gertutik jarraitu nahi dutenentzat, bada tresna baliagarri bat: EuskarAbentura aplikazioa. Codesyntax enpresak garatu du eta erabilgarri dago Android nahiz iOS sistemetak.

Aplikazio horren erabiltzaile orok, zenbait abantaila eta xehetasun dituzte abenturarekiko. Batetik, espedizioa unean-unean eta mapa baten gainean proiektatuta geolokalizatzen du. Bestetik, etapa bakoitzaren xehetasun teknikoak (kilometro kopurua, gainbehera, puntu garaia eta baxuena, profila, igarotzen dituen herriak...) jasotzen



ditu. Jzioquitarrek espedizioan zehar egindako argazkiak eta grabatutako bideoak ere erakusgai daude. Horretaz guztiaz gain, parte hartzaile guztiei buruzko aurkezpen labur bana eta zenbait bitxikeria biltzen dituzten profil-fitxak ere badira ikusgai.

Bi belaunaldiak bat eginda

Neska-mutil euskaldunen sare berri bat sortu eta elikatzea da EuskarAbentura egitasmoaren helburu nagusietako bat. Hain justu, horretarako antolatuta dituzte, aurtten estreinako, Belaunaldi Arteko Egunak. Iazko eta aurtengo parte hartzaileak nahastuko dira, elkar ezagutu eta harreman-tzeko asmoz, baita aholkuak partekatze ere. Jzioquitar ohiek, aurtengo laguntzaileekin bat egingo dute berriro.

Igande goizean, San Fermin egunez, Zubiriko frontoi ondoko aparkalekuan egin zuten lehen kontaktua. Hartu-emanak egiteko, esperientziak partekatze, elkarri galderak egiteko eta kontaktuak partekatze baliatu zituzten bertatik Iruñeara bitarteko 23 kilometroak. Nafarroako hiriburuan, berriz, festa giro bete-betea murgildu ziren. Bertako ekintzetan guztiek elkarrekin hartu zuten parte, gaubeilarekin batera, 2018ko jzioquitar 'beteranoek' espedizioa utzi eta euren etxetarako bidea hartu zuten arte.

Iruñea, ordea, ez da sarea sendotzeko eta elkarbanatuta-ko esperientzia eta kontaktuak areagotzeko geldialdi bakarra izango. Izan ere, hilaren 24an, dinamika bera errepikatuko dute. Goizean, Donostiako udaletxe atarian elkartuko dira bi belaunaldietako kideak. Alderdi Eder plazatik abiatuko den 22 kilometroko kostaldeko etapan, Zarautzeraino joango dira gazteak.



IORITZ SEGUROLA (TOLOSA, 1996)
XERPA

«Iazko esperientzia oso polita izan zen. Asko motibatzen nau Euskal Herriari bira emateak. Eduki aldetik, gainera, abentura oso interesgarria da»

«Kaikuzaleak izena du nire taldeak. Talde bakoitzeko jzioquitarrak batu eta zaintzea da xerpen egiteko nagusia»

«Ez da erraza taldea ondo kudeatzea, nahiz eta iazko esperientzia izan, eta eskema bera buruan eduki»

«Hitzaldiek eta lantegiek ekarpen handia egiten diete gazteei, profesional ezberdinek lehen pertsona kontaktatzen dutelako beraien esperientzia»

«Gogotsu iritsiko gara Tolosara. Polita izango da abentura bertara eraman eta herria gure koloreekin betetzea»

«Orain arteko etapen balorazio ona egiten dugu. Eguraldia lagun izan dugu, eta tenperatura altuei aurre egiteko, itzalgune asko izaten ari gara; fisikoki oso ondo ari dira eusten gazteak»

«Iaz bezala, taldeka egiten ditugu etapak. Lehenik, trikuak abiatzen dira, gero, katagorriak; eta azkenik, erbiak»

«Igandean ospatu genuen Belaunaldi Arteko Eguna. Iazko espedizioa 20 bat lagun batu ziren abenturara»



HAIMAR MARTIN (TOLOSA, 2001)
XERPA-LAGUNTZAILEA

«Laz jzioquitar izan ginen gazte batzuei, berriz ere espedizioaren parte izan eta esperientzia beste ardura batzuekin bizitzeko aukera eskaini ziguten»

«Xerpa-laguntzaileak komodin modura gabiltza. Espedizio guztiak motxila handi eta txiki bana ditu, eta goizero motxila handiak furgonetan sartzeaz arduratzen gara. Ezkutuko lanean aritzea egokitzen zaigu»

«Bi ikuspuntutatik bizi izan dugu abentura; horrek eragin positiboa du»

«Udari hasiera ederra emateko aukera da. Mendia gustuko dudanez, gainera, gozatzeko astia izaten da»

«Gure herriari buruz falta zaigun informazioa ezagutzeko aukera dugu. Ez dugu soilik edukiez ikasten, baita gainerako jzioquitar guztiez ere»

«Motxila handi bat bizkarrean hartuta Tolosara itzultzea berezia izango da»

«Erbiak abiatu ondoren irteten gara. Gure buruari presa sartu behar izaten diogu, beraiek harrapatzeko. Hortaz, beraiek baino azkarragoak gara»

«Kontuan izan behar da jzioquitarrak gu baino urte bat gazteagoak soilik direla; elkarren arteko tratua ezberdina da»



GARAZI OIARZABAL (TOLOSA, 2002)
JZIOQUITARRA

«Laz jzioquitar izandakoek euren esperientzia kontatu zigutenean piztu zitzaidan ilusioa. Gainera, euskarak eta mendiak asko erakartzen naute»

«Banekien niretzako moduko udalekua izango zela; oso gustura nago»

«Kuadrillako lagun batekin batera aurkeztu nintzen, baina ni bakarrik hautatu ninduten. Poza eta tristura sentitu nituen, aldi berean»

«Gazte asko etorri dira bakarrik. Beraz, Euskal Herri osoko jendea ezagutzeko eta harreman berriak egiteko aitzakia bikaina izaten ari da. Tarteka, euskalkien arteko talka berezia ere izaten dugu»

«Ederra da hilabete oso bat antzeko ohiturak dituzten adinkideekin eta giro bikaineko atmosfera batean igarotzea»

«Aipatzekoa izan da, euskarari nahiz herriko bizitasunari, Ipar Euskal Herritik Nafarroara zer nolako jauzia dagoen. Kulturen arteko talka handia izan da; ez dirudi elkarren ondoan daudenik»

«Azken proiektuari begira, gure taldeari 'Euskar Abentura 2019' espedizioa kantua egitea egokitu zaio. Trikitilari bat daukagu taldean, eta abesti bat sortu berri du. Bera izango da sormen lan horretan lehen hazia jarriko duena»



EUSKARABENTURA 2019 ESPEDIZIOKO ETAPAK

UZTAILAK 1, ASTELEHENA

Maule. Harrera, aurkezpena eta antolaketa.

UZTAILAK 2, ASTEARTEA

Maule-Pagola. 15 km.

UZTAILAK 3, ASTEAZKENA

Pagola-Jutsi. 8 km.

UZTAILAK 4, OSTEAGUNA

Jutsi-Donibane Garazi. 24 km.

Soziolinguistika saio ibiltaria.

UZTAILAK 5, OSTIRALA

Donibane Garazi-Auritz-Orreaga-

Auritz. Autobusez. Nafarroako

Erresumaren Historiari buruzko saioa eta auzolana: erreka garbitzea.

UZTAILAK 6, LARUNBATA

Auritz-Zubiri. 19 km. Orientazio tailerra.

UZTAILAK 7, IGANDEA

Zubiri-Iruñea. 23 km. San Fermin festak eta Belaunaldi Arteko Eguna.

UZTAILAK 8, ASTELEHENA

Iruñea-Gares. 23 km.

UZTAILAK 9, ASTEARTEA

Gares-Lizarra. 23 km.

UZTAILAK 10, ASTEAZKENA

Lizarra-Los Arcos-Viana. Los Arcosera autobusez; gero oinez 24 km.

UZTAILAK 11, OSTEAGUNA

Viana-Donemillaga Kukula-Añana.

Autobusez (San Millan de Suso monastegira eta gatzagetara bisitak).

UZTAILAK 12, OSTIRALA

Añana-Argantzun. 18 km. Argantzun ikastolara bisita.

UZTAILAK 13, LARUNBATA

Argantzun-Gasteiz. 17 km. Gurasoen bisita.

UZTAILAK 14, IGANDEA

Gasteiz-Araia. Autobusez.

UZTAILAK 15, ASTELEHENA

Araia-Zerain. 22 km.

UZTAILAK 16, ASTEARTEA

Zerain-Ormaiztegi-Tolosa. Ormaiztegiara

10 km; gero trenuz. Zumalakarregi museora bisita eta soziolinguistika tailerra, Tolosako Kultur Etxean, Kike Amonarrizekin.

UZTAILAK 17, ASTEAZKENA

Tolosa. Atsedeen eguna.

UZTAILAK 18, OSTEAGUNA

Tolosa-Andoain-Hernani. 22 km.

Berriaren egoitzara bisita.

UZTAILAK 19, OSTIRALA

Hernani-Irun. 25 km.

UZTAILAK 20, LARUNBATA

Irun-Donibane Lohitzune. 17 km. Antton Abadia Jauregiara bisita.

UZTAILAK 21, IGANDEA

Donibane Lohitzune-Miarritze-Baiona. 20 km oinez, eta Baionara autobusez.

UZTAILAK 22, ASTELEHENA

Baiona-Lezo. Trenuz. Euskarara gerturatu diren gazte atzeritarrekin topaketa.

UZTAILAK 23, ASTEARTEA

Lezo-Donostia. 12 km.

Feminismoari buruzko solasaldia.

UZTAILAK 24, ASTEAZKENA

Donostia-Zarautz. 22 km. Euskal dantzaren historiari buruzko saioa.

UZTAILAK 25, OSTEAGUNA

Zarautz-Deba. 22 km. Bisita: Euskal

Kostaldeko Geoparkea; Flyschak.

UZTAILAK 26, OSTIRALA

Deba-Zestoa. Autobusez.

UZTAILAK 27, LARUNBATA

Zestoa-Olatz-Markina. Olatzera autobusez; gero 16 km oinez.

UZTAILAK 28, IGANDEA

Markina-Gernika. 28 km.

Santimamiñera bisita.

UZTAILAK 29, ASTELEHENA

Gernika-Gaztelugatxe-Bermeo.

Autobusez Bakiora, gero 11 km oinez.

UZTAILAK 30, ASTEARTEA

Bermeo-Bilbo. Trenuz.

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

Bilbo-Portugalete-Getxo.

Itsasontziz Portugaletera; Bizkaia Zubitik, oinez Getxora; bertan, amaiera ekitaldia.



BATAKEZKUTATU, BESTEAK ERAKUTSI

Iraniar LGTBQ+ komunitatearen inguruan egindako argazkiak Tolosako Gernikako Arbolan jarri ditu ikusgai Ura Iturralde argazkilari tolosarrak; argazkietako gazteen historiak gertutik ezagutzeko bisita gidatuak egingo ditu, eta gaur egingo du lehena, 19:00etatik aurrera.

Irati Saizar Artola

Iazko urrian 25 egun pasa zituen Teheranen (Iran) Ura Iturralde argazkilari tolosarrak. Turismoa beste baterako utzita, asmo zehatzekin egin zuen bidaia: LGTBQ+ komunitatearen egoera ezagutu nahi zuen eta hari buruzko argazki erreportaje bat egin.

Espero ez zuen errealtate batekin egin zuen topo, eta harridura hartatik abiatuta, komunitatea osatzen duten hainbat gazteren eguneroko bizitza iruditan jaso zuen. Irudi horietatik sei aukeratu ditu eta *Iran Ezkutua* erakusketa jarri du Tolosako Gernikako Arbolan. Erakusketa, Tolosako Udaleko berdintasun sailaren, kultura sailaren eta Fotopop produkzioaren laguntzaz jarri du, LGTBQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren harira.

Gaur bertan, bisita gidatua egingo du Gernikako Arbolan, 19:00etatik aurrera. Banan-banan, argazki bakoitzean

agertzen diren gazteen istorioak kontatuko ditu eta argazkia egiteko uneak zein egoerak azalduko ditu. Bigarren bisita gidatu bat ere egingo du: erakusketa amaitzen den egunean, irailaren 6an izango da, 19:00etan. Ez da beharrezkoa izena ematea.

Irango Errepublika Islamiarrean transexualitatea erabat onartua dago. Thaiandiaren ondoren, sexu aldaketarako ebakuntza gehien egiten diren herrialdea da. Gobernuak berak ordaintzen du ebakuntzaren gastuaren zati bat. Onartuta ez dagoena, ordea, ebakuntzarik egiten ez duena da, horretarako beharrik sentitzen ez duena; pertsona hori, ordea, ez da legalki onartua. Homosexualitatea, bestalde, guztiz ilegala da, zenbait kasuetan heriotza zigorra aplikatu daiteke.

Bizimodu horretatik ihes egin nahian, «ezkutuan» ateratako argazkiak dira. Iranek ezkutatu egin nahi ditu, baina Tolosa erakustera dator.



«IRANEN TRANSEXUALITATEA ONARTUTA DAGO, BETIERE EBAKUNTZA EGITEN BADA»

URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

I.S.

LGTBI komunitateren inguruko argazki erreportajea egitera Iranera joan zen iazko urrian Ura Iturralde (Tolosa, 1979). Bertako errealitatearekin topo egin eta lehen pertsonan ezagutu du komunitatearen egoera.

Nolatan piztu zitzaizun Iranera joateko gogoia?

Oso gogoan dut erabakia hartu nuen eguna. Nik asko irakurtzen dut, eta ez dakit zehazki non izan zen, baina gogoratzen naiz irakurri nuela Thailandiaren ondoren, Iran zela sexu aldaketarako ebakuntza gehien egiten dituen herrialdea. Guztiz legala zela transexualitatea eta gobernuak ordaintzen dituela ebakuntzak. Bazirudien paradisua izan zitekeela transexualentzat. Baina nik banekien homosexualitatea heriotza zigorra izan zitekeela zenbait kasutan. Orduan, hain polita iruditu zitzaidan irakurritakoa, ez nuela sinistu. Beraz, hara joan eta galdetzea erabaki nuen.

«Gobernu aldaketa bat nahi dute, edo bestela, herrialdetik irten egin nahi dute»

Eta hara iristean zer bilatu zenuen?

Errealitate bat justu kontrakoa. Transexualitatea bai dagoela onartua, betiere ebakuntza egiten bada, ordea. Bestela ez. Nik han egin ditudan lagunek ez dute ebakuntzarik egin nahi, ez dute hortik pasa nahi. Illegalitate batean gertzen dira, non inork ez dituen onartzen, ez familian, ezta kalean ere. Gaixotasun bat bezala ikusia dago, ebakuntzarekin soilik senda daitekeena.

Bestela, pertsona horiek ez dira onartuak gizartean.

Pentsa, nik esaten badut gizona naizela, baina genital femeninoak ditudala, eta gainera emakumeak

gustatzen zaizkidala, gizartearentzat emakume lesbiana bat naiz, eta hainbat kasutan heriotza zigorra izan daiteke.

Errealitate horrekin topo egin aurretik kontakturen bat eginda joan zinen?

Bai, aurrez kontaktu bat neukan, eta hara iristean ezetz esan zidan, beldurra sartu zitzaiola eta. Orduan, hango



jendea laguntzen hasi zitzaidan, baina zenbaitetan gehiegi eta guzti. Instagramen anuntzioak jartzen hasi ziren eta poliziaren beldur izan nintzen. Iranen moralaren polizia dago kalean, erne; kalean ezin da dantza egin, ezin da abestu, zapia buruan ondo eramaten duzun edo ez begiratzen du... gauza horiek kontrolatzen ditu. Ez zitzaigun ezer pasa, baina ezkutuan ibili behar izan genuen.

Eta nola lortu zenuen argazki horiek egitea?

Azkenean, lagunaren lagunei esanda eta ahoz aho, oso argazki intimoak egin ditut. Gehienbat beraien etxeetan eta egin ditut. Nik beraien egunerokotasuna jarraitu nuen, ez nuen ezer aztoratu nahi. Unibertsitateatik ateratzean kafetegi batera joaten ziren eta nik lagundu egiten nituen, arte galeriaren batera joaten zirenean ere haiekin nindoan. Batzuk aurpegia eman dute, eta oso ausartak izan dira. Nahita egin dute, aktibismoagatik.

Arriskurik ez dute sentitu?

Aurpegia eman dutenek ez dute beldurrik izan. Badaude, ordea, beste argazki batzuk homosexualak ageri direnak. Horiek aurpegia estalita nahi izan dute.

Egoerari buelta emateko indartsu ikusten dituzu?

Ez daukate aukerarik aurre egiteko, ezin dute kalean protestarik ere egin. Niri kontatzea asko izan da, eta pentsatu dute, gutxienez, nire herrian jabetu daitezela nola dauden. Orain, Trumpen zigorrekin eta, oso nekatuta daude asko. Gazteak dira eta herrialdetik irten egin nahi dute askok. Lagun batek lortu zuen alde egitea eta Thailandian bizi da egun. Besteek gobernu aldaketa bat nahi dute, edo bestela, handik irten nahi dute. Izan ere, geroz eta gauza gehiago ari dira galarazten: adibidez, orain hilabete batzuk txakurak paseatzea galarazi zuten Teheranen.

Egin dituzun kontaktu guztiak gazteak dira?

Bai, guztiak. 19 eta 25 urte bitartekoak dira. Behin festa batera gonbidatu ninduten. Han festak pribatuak dira: etxeetan eginen dira, musika ezin dute altu jarri, bestela polizia baitator. Alkohola ere erabat debekatuta dago Iranen, eta festa hartan, merkatu beltzean erositako alkohola zuten, ez zekiten zer edaten ari ziren ere. Gogoan dut, leihotik begira egoteko eskatu zidatela, polizia edo ikusten banuen abisatu ahal izateko. Festa ere beldurrez egiten dute.

25 egun egin zenituen. Nahikoa izan zen errealtatea ezagutzeko?

Ez, asko geratzen zait oraindik ezagutzeko eta ahal dudanean berriro joango naiz.

Ez duzu baztertzen berriro bueltatzeko ideia?

Ez, ez. Nik uste, gainera, ahal dudan guztietan bueltatuko naizela. Oso erraza da bidaiatzeko; jendea oso atsegina da, turismoa egiteko ere zoragarria iruditzen zait.

Zer ikasita etorri zara handik?

Oso arraroa da dena, eta kontraste pila bat dauzka. Adibidez, ni gehien harritu ninduen zen, homosexualitatea heriotza zigorra izan daitekeela, baina, esate baterako, Teheran erdian parke bat dago eta gay guztiak han elkartzen

dira. Ni hara joan nintzen, eta hala xe zen, denak ziren gizonezkoak, guztiak zeuden binaka, bankuetan eserita. Eta polizia zegoen bertan.

Nola da posible hori?

Nik uste poliziak kontrolatuta eduki nahi dituela. Beraz, parke horretan hitz egiten soilik egoten dira. Shock moduko bat izan zen niretzat. Horrez gain, bidaia egin aurretik

bakarrik ez joateko esaten zidaten, arriskutsua izan zitekeelakoan. Eta esan dezaket ez dela arriskutsua. Polizia asko ibiltzen da kaleetan, bai moralaren polizia, baina baita polizia sekretua ere. Eta hein batean, horregatik ez nituen atera argazki asko. Zeren, ikusten baninduten, azalpenak ematen hasi beharko nuen, eta ez nuen nahi.

Maletan zenbat argazki kamara eraman dituzu?

Bakarra eta txikia. Bidaiatzerakoan iruditzen zait ez dudala atentziorik eman behar. Kamera txikia poltsikoan sartzen dut, eta ordenagailurik ere ez dut eramaten, turista arrunt bat bezala joaten naiz. Gainera, jendeari argazkiak ateratzeko ere iruditzen zait kamara handiagoa eramanda beldurtu edo kikildu egiten dituzula.

Zenbat argazki atera dituzu gutxi gorabehera?

Zehazki ez naiz gogoratzen. Argazkiak ondo pentsatuta daude, eta gutxi izan dira. Geroz eta gutxiago ateratzen ditut, izan ere geroz eta gehiago pentsatzen dut argazkia atera baino lehen. Lehen, 1000 argazkirekin etortzen banintzen, orain 80rekin etortzen naiz.

Eta horietatik sei erakusketan jarri dituzu.

Bai, lehendabizi, Barakaldoko Baffest jaialdian jarri nituen ikusgai, eta ondoren, Tolosara ekartzea erabaki nuen. Guztira sei argazki daude erakusketan, baina nire web orrialdean dago erreportaje osoa ikusgai; denera, 25 argazki dira.

«Kamera txiki bat
poltsikoan sartzen dut eta
ordenagailurik ere ez dut
eramaten horrelakoetan»

'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irriti saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM





Nola kontrolatu eguneroko pentsamenduak?

Jaikitzen garenetik oheratu arte burutik hainbat eta hainbat pentsamendu igaroko dira, abiadura bizian. Momentuaren arabera pentsamenduak azkarragoak izango dira, biziagoak eta eragin gehiago izango dute gudan.

Antsietatea sortzen duen ekintza-aren bat egin behar denean, adibidez, lan elkarriketa bat, urduritasunak pentsamenduak abiadura bizian ibiltzea bideratuko du eta ondorioz, pentsamendu gehienak errepikakorrek eta ezkorrek izango dira. Aldiz, oporretan gaudenean, pentsamenduak polikiago ibiliko dira eta askotan iraganeko edota zentzurik gabeko pentsamenduak pasako dira burutik.

Nola kontrolatu gure pentsamenduak?

Azter dezagun zer gertatzen zaigun: Gure eguneroko bizitzan, momentu lasaiago eta mugituagoak izaten ditugu. Normala da estres momentuetan pentsamenduak azkarragoak, bortitzaagoak eta mingarriagoak izatea, lasai, pasako da eta etorriko dira momentu lasaiagoak.

Momentu lasaiak bilatu:

Eseri edo etzan leku lasai eta seguru batean. Begiak itxi eta saiatsu arnasketan zentralatzen, burura etortzen diren pentsamenduei pasatzen utzi, gure arreta arnasketan zentralatuz eta ez pentsamenduetan.

Kontzentratu gure gorputzean: Arreta jarri egiten ari zaren horretan, oi-

nez banoa arreta oinetan, gorputzaren mugimenduan, eta baitakanpoko zaratetan ere jarriko dut arreta.

Pentsamenduari denbora tarte bat eskaini: Pentsamenduari denbora tarte bat eskaini eta gero esan pentsamenduari «nahikoa da zure denbora amaitu da». Burua zurian utzi eta arreta egiten ari denean zentralatu.

Pentsamenduak orri batean idatzi: Pentsamenduak, batez ere, kezkek orri batean idatzi eta irtenbidea bilatzen saiatu. Sailkatu zer nolako garritantzia daukaten gure bizitzan eta aurkitu irtenbideak kezkatzen gaitue-

Onar gaitzeen gure osotasunean, har dezagun arnasa sakon, eta arreta ekintza xumeetara bideratu

nari. Gero indarra jarri pentsamendu baikorretan, irtenbideetan pentsatu eta sentitu nola lasaitzen garen.

Zoriontasuna eguneroko ekintza xumeetan dago, norberaren onarpean eta emozio zein pentsamenduen jabetze eta kontrolatzean. Ondorioz, onar gaitzeen gure osotasunean, har dezagun arnasa sakon, arreta ekintza xumeetara bideratu eta has gaitzeen gure barruko korapiloak askatzen, lasaitzeko momentua da!



IDOIA APAOLAZA
PSIKOPEDAGOGOA ETA
EKIMENA ZENTROKO
ZUZENDARIA

Agenda

OSTIRALA UZTAILAK 12

ALEGIA

KARMEN JAIKAK

17:00. Haurren Santos Torneoaren futboto finala eskolako patioan.

18:30. Kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaletxeko arkupean.

18:30. Villabonako Besamotza erraldoi eta buruhandi konpartsa, Loatzo musika eskolako musikariekin eta Giroarte dultzaina taldearekin kalejira Larraitz auzotik plazaraino.

19:00. Kontzentrazioa plazan euskal preso eta iheslariak etxera lelopean.

19:00. Txupinazoa udal talde berriaren eskutik. Jarraian, txintzarriaren jaitziera, jaien hasiera iragartzeko.

21:00. Zahagiardoa zubian.

22:30. Bertsolariak Elizpe zinean. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Eli Pagola, Maddalen Arzallus eta Imanol Irizustabarrena. Gai-jartzailea: Imanol Artola *felix*.

00:00. Niña Coyote eta Chico Tornado eta Ze Esateki taldeen kontzertuak.

BIBALABIRJEN JAIKAK

Mozorro Eguna

12:00. Frontenis txapelketa.

14:30. Bazkaria.

Ondoren. Kuadrillen arteko jolasak Bulebarren.

21:00. Zahagiardoa.

22:30. Reggae gaua: Ziribulo Sound, Stepi Selekta, Bass Again Soinu Sistema.

06:00. Elektrotzaranga: Elektropapo.

IBARRA

22:00. Ibarrako V. Mus Txapelketa

Herrikoiairen kanporaketa jokatu da Alai tabernan.

IRURA

IRURA BIZI ELKARTEAREN EGUNA

18:00. Irura, denboran zehar. Garai bateko Irura ezagutzeko bisita antzetzua, plazatik abiatuta.

20:00. Poteo musikatua.

21:00. Herri afaria.

Afalondoan. Sabin Guarestiren musika emanaldia.

TOLOSA

BISITA GIDATUA, 'IRAN EZKUTUA'

19:00. Ura Iturralde argazkilari dokumental tolosarrak *Iran Ezkutua* erakusketa jarri du, Gernikako Arbolaren lorategian. Iranar LGBTI komunitateari buruzko istorio desberdinetan oinarritzen den argazki erakusketa da, eta bisita gidatua egingo du. Ez da beharrezkoa izena ematea.

MUSIKA

22:30. Lisabö eta Doble Capa taldeen kontzertuak izango dira, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

LARUNBATA UZTAILAK 13

ALEGIA

KARMEN JAIKAK

09:00. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

12:00. Sagardo dastaketa sardina eta txorizo errekin. Sagardotegiak: Eguzkitza, Sarasola, Isastegi, Zalbide eta Aulia. Irma Karrera eta Jokin Tolosa trikitilariak alaiturik.

15:00. Alegiako IV. Goitibehera Jaitziera Napar-Etxeberitik behera.

18:00. Pilota partidak. Alegiako IX. Pilota txapelketako finalak. Neskak palaz eta mutilak eskuz binaka.

Profesionalak: Artola-Urretabizkaia vs Bengoetxea-Aranguren.

21:00. Zahagiardoa Larraitz auzoan.

23:00. Deabru Beltzak taldearen *Les tambour de feu* emanaldia kaleetan zehar.

00:00. DJ Josu Rodriguez.

BIBALABIRJEN JAIKAK

21:00. Zahagiardoa.

23:00. Kontzertuak: Herenegun, Basati eta Desegin.

ASTEASU

II. ORIENTAZIO PROBA

HERRIKOIA

17:00. Santamañako jaien barruan egingo da. Izena, 16:00etik 17:45era eman beharko da. Hiru proba egongo dira: luzea (17:00etan hasita), ertaina (18:00etan) eta motza (18:30ean). 12 urtetik gorakoek 5 euro ordaindu beharko dute, eta beherakoek, 3 euro. Bakarka edo taldeka parte hartzeko aukera egongo da. Juneren Hegoak elkarteari (www.junerenhegoak.org) bideratuko diote inskripzioen diru guztia.

TOLOSA

AURRERA TOLOSA PILOTA ELKARTEAREN EGUNA

08:45. Frontoian elkartuko dira eguna hasteko.

09:00. Uzturre mendira igoera.

11:00. Mendian izan direnentzat gosaria izango da Aurrera Elkarrekin antolatuta.

13:00. Frontoian elkartuko dira berriro argazkia ateratzeko, jarraian triki poteoa.

14:30. Bazkaria.

18:00. Triki poteoa kaleetan barrena, eguna amaitzeko.



Nafarroa etorb. 13 behe • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313

**Hemen zure
iragarkia joan
daiteke**

publi@ataria.eus

661 678 818



BIBALABIRJEN FESTEI KARMENAK GEHITUKO ZAIZKIE, GAUR, ALEGIAN

Alegia festetan dago. Asteazkenean eman zieten hasiera Bibalabirjen jaiei eta Igandera arte luzatuko da Bulebarreko festa.

Gaur, 19:00etan, Karmen jaiei hasiera emango dien suziria lehertuko da plazan, eta astearte bitarte, atsedetik gabeko egunak izango dira festa egin nahi duten alegiarrentzat. **ASIERIMAZ**

HITZALDIA

18:00. *Alimentación inteligente macrobiótica* hitzaldia, Gorka Pradaren eskutik, La Jara Elkartean, doan.

IGANDEA UZTAILAK 14

ALEGIA

KARMEN JAIK

09:00. Kalejira berezia, herriko txistulari ohiekin.

11:00–14:00. Haur parkea eskolako patioan.

12:15. Leiho eta balkoi ederrenaren lehiaketaren sari banaketa.

12:30. Aire Ahizpak taldearen emanaldia.

16:00. Haur parkea eskolako patioan.

18:00. Apar festa.

18:30. Herri kirolak Larraitz auzoko plazan: Harrijasotzaileen XIII. Txintxarri Saria. Harri txikien Euskadiko harrijasotze txapelketa. Partehartzaileak: Inhar Urruzuno Pagoaga (Bi), Imanol Albizu Arrilaga Goikoetxe (Gi), Iñigo Eizaguirre Ascaray (Gi), Hodei Iruretagoiena Uriazeta IV (Gi), Mikel Lopetegi Gereka Urria (Gi), Xabat Olaizola Aristi (Gi), Aimar Irigoien Jauregi (Gi).

19:30. Tio Teronen Semeak taldeak *Festamentua* emanaldia eskainiko du.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00. Fan&Go taldearekin erromeria.

BIBALABIRJEN JAIK

18:30. Akustikoa: Taupada.

21:00. Zahagiardoa.

22:30. Herriko bertsolariak. Bokatak txoznan, Alegiako Basket Taldearen eskutik.

ASTELEHENA UZTAILAK 15

ALEGIA

KARMEN JAIK

09:00. Giro arte taldeak alaituriko diana.

09:00. Erretiratuek antolatutako mendi ibilaldia.

11:00. Erretiratuentzat hamaiketakoa.

14:00. Umeen bazkari herrikoia plazan.

15:00. Haurrentzako play-back saioa. Ondoren. Zumba saioa.

16:30. *Gora kasete* haur antzerkia izango da plazan.

18:00. Umeentzako txokolatea plazan.

19:00. Herriarren arteko toka txapelketa plazan 12 eta 15 urte bitartekoentzat, eta ondoren 16 urtetik gorakoentzat.

21:00. Zahagiardoa plazan.

23:00. Sara Zozaya eta Nerabe taldeen kontzertuak egingo dituzte plazan.

TOLOSA

ODOLE MATEA

18:00–20:30. Hileroako odol ateratzea izango da. Txandarako zenbakiak kultur etxeko sarreran uzten dira, egunean bertan, 17:30ean.

MUSIKA

22:30. Zig Zags taldearen kontzertua izango da Bonberenean, Los Angelestik etorrita. Sarrera: 8 euro.

ZINEMA

LA VIUDA

Igandea (19:30).

Astelehena (20:30).

Leidor, Tolosa.



San Ferminen resaka



MADDI ETXEBERRIA

*Post San Ferminen resaka
Iruña edo Lesaka
kalimotxoa, kaña, leja
edota kubata.
Zenbat santu, zenbat data
udara hortako da ta
zuen agendan parranda onik
ez dadila falta!*



Doinua

Mendian gora

Zein da proiektatzen dudan irudia?

Guk egiten dugun horretan, belaunaldi gazteagoek ere, jarraitzea izaten da askoren helburua. Eta «nik egiten du-

danez, gazteagoek zergatik ez?» pentsatzen dugu. Exijitu ere egiten dugu kasik eta egiten ez badute «gure garaian...» eta «gaur egungo gazteek...» hasten diren esaldiekin kritikatzeko ditugu.

Baina, zergatik uste dut: «Nik egiten dudalako ondorengoek ere egingo dutela?» Nik egiten dudalako jada hori egiteko gogoa eta grina transmititzen al ditut? Edo guztiz kontrakoa?

Egiten ari garen momentuan, zein da proiektatzen dugun irudia? Ondorengoentzat «erakargarria» al da transmititzen dudana irudia? Erakargarri baldin bazaie, errepikatuko dute. Bestela ez.

Inbidia puntu bat sortu behar du militanteak, baldin eta ondorengoek bere bidea jarraitzea nahi badu.

Militantearengan sakrifizioa, buruhaustea, haserreak, enfrentamen-

dua... soilik ikusten baditu, gazteagoak ez du etorkizunean hori nahiko. Aldiz, ilusioa, alaitasuna, konbentzimendua, umorea... ikusten baditu,

bada agian errepikatuko du. Agian, bere buruaren-tzat ere nahiko du.

Beraz, egitea bezain garrantzitsua da, egitean ematen dugun irudia.

Duela bizpahiru urtera arte herrian ematen nuen irudia eta orain ematen dudana ez dut uste berdinak direnik. Orain behintzat ez dut uste inoren inbidia naizenik, inori nik daramadan bizitza errepikagarri zaionik. Eta egiten dudana ondorengoek

egiten jarraitzea nahi badut, aldatu beharra ditut moduak, formak.

Kontua da, lehen nahi nuelako egiten nituela gauzak, gaur egun, sarritan, egin behar direlako. Aldatu beharra daukat gauzak ikusteko modua eta egiteko modua. Horrekin batera aldatuko da nireganako sortzen dudana irudia ere.

Eta zuk, zer da inguruan proiektatzen duzuna?



**IMANOL ARTOLA
ARRETXE 'FELIX'
FILOSOFOA ETA
ANTZETZLEA**

**Militantearengan
sakrifizioa,
buruhaustea, haserreak,
enfrentamendua...
soilik ikusten baditu,
gazteagoak ez du
etorkizunean hori
nahiko. Aldiz, ilusioa,
alaitasuna,
konbentzimendua,
umorea...
ikusten baditu, bada
agian errepikatuko du**

KOMIKIA JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE



Elkanotarren Mercosur

29

Bost mende Elkanok, lehen aldiz, munduari bira eman omen zionetik (omen diot, historialari zenbaiten ustez ehun urte lehenago Txinako enperadorearen itsas-gizonek emana ziotelako). Baina ze inporta ote du lehena edo laugarrena izan: Espainiako Inperioaren ikurra da Elkano. Espainiako Armada eta Gobernuari ari dira urtemuga prestatzen, ikusi nahi ez duenaren betiko begiradarekin. Kolonialismoari gorazarre, emakumeen bortxaketari, esklabotzari, aberastasunen lapurrete, kultura eta hizkuntzen genozidioari gorazarre. Eta gu (gu esatea gehitxo dela jakin arren) hor, espainiar armadaren Elkano ontzia Getariara etortzearen aurkako mozioak onartuagatik, ikusi nahi ez duenaren begirada berberarekin, ekimenak eta, nola ez, turismo eskaintzak prestatzen.

«Bost mende ez dira alferrik pasa» esan behar genuke, baina ez dakit ez ote diren alferrik pasa. Aste honetan



**MADDI SARASOLA
EIZMENDI**
BETAURREKO
BERDEEKIN

eman dute jakitera Europar Batasunak eta Mercosurrek (Argentina, Brasil, Paraguai, Uruguai eta Venezuela) merkataritza aserako akordioa lortu dutela. Akordioa sinatsera iritsiko balira 800 milioi kontsumitzaileko merkaturak sortuko lukete. Mugazergarik

gabe etorriko dira zerealak eta haragia. Mugazergarik gabe bidaliko ditugu autoak eta etxetresnak. Eta joan-etorri guztietan, kapitalaren metatze ase ezin honetan, bertan jarraitzen dute elkanotarren bortxaketa, lapurreta eta genozidioek. Gure aukera da ikusi nahi ez dutenen begirada betikotuaz jarraitu edo ertz guztiak er-

dira ekarri nahi dituen begiradaz ekin.

Baina Mercosur eta Elkanoren bueltan elkarriketa bat burutik kendu ezinda nabil. Xabier Alberdi historialariaren hitzak dira: «Estrategia handi bat, aparteko enpresari gisa ikusten dut Elkano, ADEGIko presidente baten antzera. Abentura sena

duen ekintza gizon bat. Arrakasta nola edo hala lortzeko zer egin behar den pentsatu eta esango duen Jose Luis Korta bat. Ez gara jabetzen Elkanok egin zuenaren tamainaz eta gainera euskaldunok ez dakigu gure burua saltzen». Euskaldunok ez dakigu gure burua saltzen... Ejem... Elkanok bizirik jarraitzen du.

Eta joan-etorri guztietan, kapitalaren metatze ase ezin honetan, bertan jarraitzen dute elkanotarren bortxaketa, lapurreta eta genozidioek. Gure aukera da ikusi nahi ez dutenen begirada betikotuaz jarraitu edo ertz guztiak erdira ekarri nahi dituen begiradaz ekin

EGURALDIA



OSTIRALA

Uda-beteko eguraldia izango da. Nahiz eta beste egun batez ipar-haizea ibili, tenperatura maximoek beste koska bat gora egingo dute eta bero egingo du. Egunekeo erdiko orduetan termometroak 27-29 gradutan joko du goia, Tolosaldeko txorik beroenetan 30-31 gradu harrapatuz. Zeruiri dagokionez, goizeko behe-laino puntu bat eta goi-hodeiren bat salbu, giro urdina nagusituko da.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Giroak ezegonkortzera egingo du. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte giro polita izango dugu, non, nahiz eta, zeruan goi-hodeiak nagusituko diren, giro lasaia izango dugu. Tenperatura altua izango dugu. Maximoak egunekeo erdiko orduetan 28-30 gradu bitartean errendituko dira. Arratsaldeak aurrera egin ahala, ordea, bero-hodeiak garatzen hasiko dira eta iluntze-gau partean ekaitzen bat edo beste leher-tuko da. Ekaitzak ez dira ugariak izango baina txokoren batean gogor jo lezake.

IGANDEA

Egonkortzera egingo du eguraldiak Goiza triste xamarra izango da, iparmendebaldeko haizeak hodei tapaki handia bultzaraziko baitu eta euri-largar pixkat bat izango dugulako. Egurditik aurrera ordea azkar batean altxatzen hasi eta arratsalde eguzkitsua izango dugu. Termometroak nabarmen behera egingo du, egunekeo erdiko orduetan 22-24 gradutan joaz goia.

OSTIRALA
12



IGANDEA
14



LARUNBATA
13



ASTELEHENA
15



IRAGARKI LABURRAK



BAZKARIA

SAM. Aurten SAM enpresak 100 urte betetzen dituela eta hainbat ekintza burutuko dira. Horietako bat irailaren 28an, fabrikako instalazioetan, langile eta langile izandako guztientzat ospatuko den bazkaria izango da. Izen ematea uztailaren 31 baino lehen. Telefonoa / WhatsApp: 666427699 edo centenariosam@gmail.com helbide elektronikoan.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



UZTAILAK 12, OSTIRALA

TOLOSA
Egunekoa. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

UZTAILAK 13, LARUNBATA

TOLOSA
Egunekoa. Santamaria Marijuan.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.

UZTAILAK 14, IGANDEA

TOLOSA
Egunekoa. Santamaria Marijuan.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefonoa: 943 65 46 10.

UZTAILAK 15, ASTELEHENA

IBARRA
Egunekoa. Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Azpiroz, L.
Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpene, eskualdeko berriak, Tolomendiren tartea eta Karlos Linazasoro kale kantoitik.
11:00. Hamaiketako. Tolosako berriak Josu Artutxarekin.
18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

10:00. Trikitia.
14:00. H(H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felixekin.
16:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.
17:00. Kokondo. Oskar Tenak gidatutako musika saioa.
18:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.
16:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.
18:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.

ASTELEHENA

Egun osoan. Euskal musika.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. Denbora da poligrafo bakarra.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:00. Elkarriketap (Oier Sanjurjo).
22:30. 1, 2, 3 Hemen da Miru!
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

ZORION AGURRAK



Zorionak

Galxoak gu. Ooooooh! Aurtengoan faltan botako ditugu etxean eginiko magdalena gozo horiek. Zorionak eta egun on-ona pasa igandean!

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

VILLABONA

UZTAILAREN 18tik - 21era

ORDUTEGIA: 18.00 etatik 1:00 etara

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

VILLABONAKO UDALA

MERKEALDIA

Zatoz eta
aprobetxa itzazu
VARILUX
LENTEETAN
ditugun prezio
paregabeak

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com





Egundoko auto azoka

**AUKERA BAKARRA
IREKIERA DELA ETA**

Autoaren garbiketa eta azterketa doan.
Auto berri, aukerako eta erdiberrietan

**Uztailaren 18, 19 eta 20ean Iñautsi
Industrialdean soilik, Olaberrian**



PEUGEOT
CARZA GIPUZKOA



NOVOCAR



Jeep



BERRI MOTOR

**CARZA
OCASIÓN**